

1992ko UZTAILAREN 23ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatzehun eta laurogeitamabiko uztailaren hogeitahiruan, gaueko bederlatziak direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea, Ramon Bengoetxea Altuna; Iñigo Arreseigor Bengoetxeak jakinerazi duenez, kanpoan lanean ari da eta ez da agertuko; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Idazkariak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

TOLOSAKO ZABORTEGIA:

Lizartzako Udala, Udalerri honetako Hiri Ondakin Solidoen problematika sakonki aztertzen ari da, horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidrauliko eta Ingurugiroko Departamentuarekin zenbait bilera egin dituelarik.

Bilera hoietan, aipaturiko Departamentuko Diputatu Jaunak, aditzera eman duenez, 1.992ko ekitaldi honetan, H.O.S.en tratamendu politika berri bat martxan jartzeko borondatea dago, eta horretarako 1.992ko ekitaldi honetan bertan, ondakinen bilketa selektiboa, zenbait materialen berziklaezinen tratamendu egokia lortu ahal izateko burutu daitezkeen zenbait ekintza zehazten hastera doaz.

H.O.S.en politika honi buruzko bilduma, "GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN, H.O.S.EN POLITIKA BATEN FORMULAKETARAKO ERIZPIDEAK" dokumentuan ikus daiteke, honela dioelarik:

"GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN, H.O.S.EN POLITIKA BATEN FORMULAKETARAKO ERIZPIDEAK.

1.- Sarrera

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionez, gaur egun Gipuzkoan H.O.S.en politika H.O.S.en PLAN ZUZENDARIAN oinarriturik dago, honek, nahiz H.O.S.entzat, nahiz ondakin INERTEentzat, eskualdeko zabortegei kontrolatuen sare baten ezarpena planteatzen duelarik (Donostialderako beste alternatiba batzuk ikertu ziren arren, azkenik zabortegea sendotzera iritsi zen). Sare hau ia amaiturik edo amaitzear dago H.O.S.ei dagokionez, eta une honetan ondakin INERTEen eskualdeko zabortegei baten ezarpeneruntz doa.

Aipaturiko sarea osatzen duten zabortegetariko batzuk handitze prozesuan daude (zabortegeien salbuespena den Akeiko Labe Erretegiaren kasuan, Gipuzkoako ondakinaren %25a tratatzen da eta eraikuntza berri bat gehitzearen posibilitatea ikertzen ari dira), beren bizitza erabilgarria 10 edo 12 urteetara luzatuko delarik.

2.- Zabortegeien etapa historikoaren amaiera

Obra Hidrauliko eta Ingurugiro Departamentuak, lehenik eta era orokorrean, H.O.S.en politika hau handitze hauekin bere azkenera iristen dela, eta nahiz eta herrialde aurreratuetan H.O.S.en zatirik handiena beren zabortegei kontrolatuen bidez tratatua izan, zera ulertzen du:

- H.O.S.en tratamendurako dauden teknologiek izan duten bilakaeraren ondorioz.
- Zabortegei kontrolatuak jartzea onartzeko herrietako biztanleen eta Udalen gero eta erresistentzia handiagoaren ondorioz.
- Gure sozietatean bilketa selektiborako irekitzen ari diren bide berrien ondorioz, eta
- Zabortegei kontrolatuekiko beste lurralde eta herrialdeetan garatzen ari diren zabortegei kontrolatuen tratamendu sistema alternatiboen esperientzien ondorioz.

Gipuzkoako H.O.S.en politikan, kanpo honetan alternatiba aurreratuago batzuk ikusi ondoren etapa berri bat azaldu dela esan daiteke. Gai honetan epeak benetan luzeak izan daitezkeela konsziente izanik, Departamentu honek, 1.991-95eko legealdirako inplantatu daitezkeen sistema berri posiblei buruzko gogoeta edo erreflexio sakon bat planteatzen du, aipaturiko epea amaitzerako ondorengo helburuak lortu nahi lituzkeelarik:

3.- Helburuak

- 1) H.O.S.en bilketa selektiboa egin ahal izateko sistemarik aurreratuena inplantatzea. Ekintza honen zailtasunak, sistemaren inplantazio progresiboa edo geldia eragingo du, nahiz sistema hau geografikoki zabaltzen joateko, nahiz bereizturik bilduko diren elementuen zenbatekoa gehitzen joateko; lehenengo etapan beira, papera, kartoia eta pilak bilduko dira, ondoren metalezko latak, plastikoak, medikamentuak e.a. bildu ahal izango direlarik.
- 2) Bilketa selektiboaren ondorioz jasoriko ondakinen berziklaia, hau operazioaren bideragarritasun ekonomikoa kontutan izanik egingo delarik, bere iraunkortasuna ziurtatzeko.
- 3) Berziklaezinak diren ondakinen tratamendua, ingurugiroarentzat egokienak diren formulak erabiliz (konpostajea, erreketeta edo beste batzuk) egingo direlarik.

4.- Burutuko diren ekintzak

Orain arte aipaturiko gogoeta garatu ahal izateko Ingurugiroko Zuzendaritzak legealdi honetan honako ekintzak burutzeko asmoa dauka:

- 1) Gipuzkoako H.O.S.en konposaketa kualitatibo eta kuantitatiboa, eskualdeka edo biztanleria-gune garrantzitsuka (adibidez Donostia) ikertzea, honek arazoa kualifikatzea, bere izaera aztertzea eta

espezializatzea ahalbidetuko duelarik.

- 2) Aurrez azterturiko H.O.S.en Ahalmen Kalorifiko Gutxienaren azterketa burutzea.
- 3) Gipuzkoa osoaren esperientzia aztertuz eta ikerketa estadistiko bat egin ondoren, H.O.S.en bilketa selektiboaren kanpaina piloto baten diseinua egitea, berau berehala inplantatua izan dadin. Kanpainaren diseinuak bilketa eta berziklaia e.a. inplantatuko diren auzo eta Udallerriak zeintzuk diren azaldu beharko du.
- 4) Aurrekoaren gehigarri bezala, kaleko kontenedore selektiboan eta modularren sistema, beren karga eta deskarga sistema, mantenimendua, garbiketa e.a. diseinatzea.
- 5) Gelditzen diren ondakin berziklaezinen tratamendurako dauden sistema ezberdinen azterketa konparatiboa egitea. Gipuzkoan aplikagarri diren izaera, zabalera e.a. dituzten plantak bisitatuz.
- 6) Gipuzkoako lurraldearen errealitatearen ikerketa egitea, zaborren tratamendurako planta bateratu bat eta zona bakoitzeko transferentzi estazioak biltzen dituen sare bat jartzeko posibilitatea aztertzeko (Plan Zuzendarian honi buruz doan informazioaren berrirakurketa eta gaurkotzea barne).
- 7) Deskribaturiko sistemari buruzko edo jartzea interesgarria dela azaltzen den sistemaren azterketa ekonomiko finantzieroa egitea, hori gestionatzeko eratu daitekeen enpresa publikoaren (Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren ezaugarri berdintsuetakoa) posibilitatea gehituz.

5.- Gaiari buruzko eztabaida politikoa

Aurrez aipaturiko azterketa edo ikerketak burutu ondoren, gaia Diputatuen Kontseiluan eztabaidatuko da, ondoren berau Gipuzkoako Batzar Nagusietara eta

Lurraldeko Udaletatik pasako delarik, egituraketa garrantzitsu honen ezarpenerako behar adineko adostasuna lor dezan.

Udal honek orain hastera doazen lan erizpide hauen aldeko interes handiena azaltzen du, teknika hauek etorkizunean, gaur egun H.O.S.en tratamendurako erabiltzen diren zabortegei kontrolatuen alternatiba bilakatzen joan beharko dutelarik.

Testuinguru honetan, eta behin behineko egoera batetan, Udal honek, lehen aipaturiko alternatibak praktikoki materializatzen diren bitartean eta Eskualde honetara zabaltzen diren bitartean, Zabortegei kontrolatuen sistemaren erabilpena planteatzen du.

Horretarako, Tolosako Udalari bertako zabortegeira H.O.S.ak eramateko baimena eskatzea erabakitzen da, Udal horrek, orain arte baimen hori eskatu duten Udallerriei eman dien hitz eta baldintza beretan, eta horretarako Eskualdeko Zabortegeiaren kokapen egokiena, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartzen duena dela erabakitzen da.

EPAILEAREN HAUTAKETA

Epaitegitako Judizial Plantaren Lege berriaren arabera, herri bakoitzean, Epaile berriaren hautaketa egin behar da.

Horretarako prozesua, Herrian agiria jarri, nahi dutenek, izena eman dezaten. Gero Udal Batzarrak izendapena onartu eta proposamena, Euskal Herriko Auzitegi Gorenera bidali beharko du, bertan, izendapena onartu dezaten.

Agirie jarri eta inork izena emango ez balu, gaur egun lan hori betetzen duen, Hermenegildo Irazu Jaunak adierazi duenez, prest egongo litzake, postu horretan jarraitzeko.

Guzti honen arabera, inor interesatuta egongo balitz, izena emateko epea zabalduaz, Herrian agiria jartzea onartu da.

U-1 SEKTOREKO PLANA

U-1 Industri Sektorearen Plan Partzialak, Birpartzelazio Egitasmoa eta Urbanizazio Egitasmoaren Erredakzio Kontratatorako Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Plegua aurkezten du, Hirigintza Batzordeko partaidea den, Julian Zubeldia Aierbek, ondorengo testuaren arabera:

U-1 INDUSTRI SEKTOREAREN PLAN PARTZIALA, BIRPARTZELAZIO EGITASMOA ETA URBANIZAZIO EGITASMOAREN ERREDAKZIORAKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA

BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA

1.- XEDEA

Kontratazio honen xedea da Plan Partzialaren, Birpartzelazio Egitasmoaren eta Urbanizazio Egitasmoaren erredaktatze lanak egitea, gerora Lizartzako Udaleko U-1 Industri sektorearen garapena burutzeko.

2.- LANAREN EDUKINA

Plan Partzialak, Birpartzelazio Egitasmoak eta Urbanizazio Egitasmoa Indarreango Lurzoruaren Legeak eta Planeamendu eta Gestiorako Araudietan beraien burutzapenerako eskatzen dituen agiri grafiko eta idatziak eduki beharko dituzte, eta dena dela Hirigintz Eraentzako eta Lurzoluaren Balorazioaren Erreforma Legean ezarritako erabakietara egokitu beharko dira.

PLAN PARTZIALA

- a) Memoriak, gutxienik, Planeamendurako Araudiaren 58. artikuluan eta ondorengoetan ematen diren baldintzak bete beharko ditu, bere izaeragatik aplikagarri ez direnak ezik betiere.
- b) Hirigintzari buruzko Informazioa Planeamenduko 59. artikuluan esaten

duenera egokituko da.

- c) Informazio eta antolamenduko planuak Planeamendu Urbanistikoko Araudiaren 59. eta 60. artikuluek zehazten dutenera egokituko dira, burutzapenerako erabiliko den instrumentu urbanistikoaren ondorio diren aldaketak besterik ez dituelarik jasango.
- d) Etapen Plana eta orientaziozko Egitaraua aurkeztuko dira, Plan honetan aurrikusitako ihardueren burutzapenerako, denboraren arabera egina eta Udalaren ahalmen ekonomikoetara moldatua, kontutan izanik, era berean, zein izango den Plan honen burutzapenaren emaitza eta ezarriko diren gestio sistemen erabilpena, Planeamenduko Araudiaren 62. eta 63. artikuluetan zehazten denari eutsiz.
- e) Plan Partzialeko Ordenantzek arautuko dute zein izango den lursailen eta eraikuntza publiko nahiz pribatuaren erabilera, Planeamenduko Araudiaren 61. artikuluan adierazten direnei eutsiz.
- f) Plan Partzialean bildutako erabakiak Planeamenduko Araudiaren 45. artikuluan eta ondorengoetan aurrikusitakoetara egokitua beharko da.

URBANIZAZIO EGITASMOA

- g) Urbanizazio Egitasmoa Plan Partzialean aurrikusitako hirigintza obrak biltzen dituen egitasmoa izango da, esate baterako bertan adieraziko dira kalebideak, ur hornidura, estolderia, energia elektrikoa, kaleen argiztapena, lorategiak eta antzerako beste zenbait.
- h) Urbanizazio Egitasmoak bertan egin beharreko obralanak egitasmoaren egileak dituen teknikok behar bezala burutzeko xehatu eta programatu beharko ditu.
- i) Egitasmoak Planeamenduko Araudiaren 69. eta 70. artikuluetan adierazten diren agiriak eduki behar ditu.

BIRPARTZELAZIO EGITASMOA

- j) Birpartzelazio Egitasmoa Plan Partzialarekin batera izapidetuko da, baina bere behinbetiko onespena Plan Partzialaren onespeneren baitan egongo da.
- k) Birpartzelazio Egitasmoak Gestio Urbanistikoko Araudiaren 82. eta 83. artikuluko aurrikusten diren agiriak jaso beharko ditu.
- l) Planoak aipatu Gestio Urbanistikoko Araudiaren 84. artikuluko zehaztapenak eta bertan adierazten den eskala kontutan hartuta egin beharko dira.

3.- EPEAK

Lana, lehiaketara aurkeztutakoan egindako eskaintzak adierazten zituen etapetan burutuko da, bakoitzarentzako aurrez ezarritako iraupena izango duelarik eta bere burutzapenak beste egitasmoen izapidatzearekin sinkronizatzea aurrikusiz, horrela guzti horiek onespena urtebeteko Epean egin dadin.

Epeen iraupena behinbetiko adjudikazio erabakia hartu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da eta hortik kendu egin beharko da Udalak lanaren fase bakoitzarentzari buruzko erabakia emateko hartu beharko duen denbora.

4.- LIZITAZIO MOTA

Lizitazio mota zehaztugabetzat ezarriko da eta eskaintzagileak zehaztu beharko du bere eskaintzan.

Bertan eskaintzagileak erabakitzen dituen aldaketak jaso ahal izango dira burutuko diren obralanei dagokionez, baino ongi zehaztatu beharko dira zeintzu izango diren eta beren eragin ekonomikoak.

Eskeintzak finkotuko duen diru kopuruan burutzapen materialaren kostua, onura, ezustekoak, zergak eta bereziki B.E.Z.a, gastuak, e.a. jaso beharko dira, Udalak ez duelarik inolaz ere adjudikazioaren zenbatekotik gora ezertxo ere abonatu. Koste horretan barneraturik egongo dira aldaketak eragindakoak eta erakusketa publiko edota onspenetarako egin beharreko testu bateratuak eta baita Behinbetiko Testu Bateratua.

5.- ORDAINKETAK

Burutuko den obralanaren ordainketa zatika egingo da bere faseak amaitzen diren eran.

Eskeintzagileak bere eskaintzan adierazi beharko du fase bakoitzaren amaieran abonatu beharko dioten kopurua zenbatekoa den eta horri dagokion lanen eskuratzea egin, kontutan izanik, horretarako gutxienez %20 lanen behinbetiko amaieran jasoko duela.

6.- UDALAREN ESKUHARTZEA OBRALANETAN

Adjudikaziodunak Udalari beharrezko den informazioa eman beharko dio, lanen egoera nolakoa den adieraziaz, horretarako beharrezko diren bilerak egin beharko dituelarik.

Era berean, erreferentzizko espedienteen izapidaketarako laguntza eman beharko du, beste kontratazio baten xede izateko inolako eragozpenik eduki gabe.

7.- KONTRATUAREN BURUTZEA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratua burututa geratuko da adjudikazioa egiten den unetik, Udala eta adjudikazioduna behartzen dituelarik. Adjudikaziodunak, adjudikazioaren notifikazioko testuan agindu bezala eskaintzan adierazitakoarekin eta Baldintza Pleguan zehazten diren forma eta epeekin bat etorri hasi eta jarraitu beharko ditu prestazioak, horretarako ez delarik beharrezkoa Udal Administrazioaren eskaerarik.

Kontratuaren formalizazioa, horrela dagokionean, indarrean dauden arauak egokituko zaie, baina bere atzerapena edota gabezia ez da oztopo izango Udalak eta adjudikaziodunak beren eginbeharrekin betetzeko aurreko parrafoan zehazten den moduan. Kontratuaren formalizaziorako gastuak, adjudikaziodunaren kontura egingo dira.

8.- KONTRATUAREN KONPLIMENDUA

- a) Kontratua adjudikaziodunaren "arrisku eta ondorioetara" onetsia ulertuko da, Estatuko Kontratuen Legearen 46. artikulua dioenari eutsiz.

Kontratu honen prezioak ez dira inolaz ere berriz aztertuko, ez bada Plegu hauetan espreski adierazitako kasuetan.

- b) Adjudikaziodunak Udalaren eskutik jasotzen dituen argibide eta aginduak jarraitu beharko ditu, eta era berean, Baldintza Pleguak eta ezarritako prezioak nabarmen eragingo ez dituen xehetasunen aldaketak onartzea.

Garrantziko aldaketak, nahiz eta prezioengan aldaketarik ez eragin, edota Araudiko 54. artikuluan adierazten direnak, edozein delarik kasua Gorporazioaren onspena jaso beharko dute, kostuaren eraldaketa eragiten dutenak likidazioan deuseztatu egingo direlarik, ez badute alde aurretik Udalaren onspena jaso, adjudikaziodunak ezin izango duelarik alegatu lan horiek burutuak izan direla. Beraz, adjudikaziodunak ezetza eman beharko dio horrelako edozein lan burutzapenei ez badira alde aurretik Udalak onetsiak izan.

Dena den, eskaintzan edota dagokien Pleguetan aurrikusten ez diren obrak burutzen baditu alde aurretik Udalaren onspena izan gabe, horiek Udalaren jabetza izatera pasako dira, ez delarik berain truke inolako ordainik emango.

- c) Legeetan emandako aldaketen eraginez edota Udalaren erizpidea aldatu

egin delako aurkezpen kontratatuetan edota egindako obralanetan haren edukina nabarmen eragingo duten aldaketak egin behar badira, Udalak aukera edukiko du kontratua hertsia eta egindako obralanen ordaina pagatzeko edota obralanen burutzapena araudi edo erizpide berriarekin bat etorritik adostasunez erabakitzea prezioak ezberdinak badira ere.

Adjudikaziodunak eskubidea dauka Udalari neurri bi horietatik bat har dezala eskatzeko eta hori Udalak bi hilabetetako epean egin beharko du, erabaki hartze eza kontratuaren deuseztapentzat hartzen delarik.

9.- ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOAK

Obralanaren fase guztiak biltzen dituzten agiri grafiko eta idatziak adjudikaziodunak entregatu beharko ditu bakoitzaren originala eta lau kopia ekarriz. Planu originalak poliester deformaezinean eginak egon beharko dute.

Egindako lanak informazio publikoak, behinbehineko onespeneak edota behinbetikoak aldaketak egin behar direla edota egitasmo bateratuak osatu behar direla erabakitzen bada, hori adjudikaziodunak egin beharko du bere beste edozein egiteko bezalaxe, adjudikazio prezioan barne egongo delarik.

Batez ere, aurreko parrafoan adierazitakoa edukiko da kontutan Plan Partzialaren behinbetiko onspena dela eta, horrek kasua izanik, behinbetiko egitasmoaren egintza eskatuko du, bertan egindako aldaketak jasoz.

Plan Partzialak, bera osatzen duten agiriz hornitua egongo da Gipuzkoako Diputazio Foraleko Departamentuak eskatzen dituen taju eta aurkezpenez eginak. Azken honi dagokio behinbetiko onspena.

10.- KONTRATUDUNAREN BERANDUTZA

Kontratudunak berandutzako hobena egingo du Plegu honetako hirugarren klausulan ezarritako epeak betetzen ez baditu, ez delarik horretarako beharrezkoa aldeztu aurretiko eskaera ezta inolako oharrazpenik egin beharko Udalaren

eskutik.

11.- SANTZIOAK

Kontratudunak honako santzioak nozitu beharko ditu Gorporazioaren eskutiz hala dagokion kasuan, horretarako bideratuko den espedientearen aurretik, hori ez delarik eragozpen izango kontratua bera ere iraungitzeko. Honakoak dira santzioak:

- a) 5.000 pzt.tako isuna izango du obralaren amaiera egunetik aurrera atzerapen egun bakoitzarengatik edota proportzioan egongo den zenbateko batena atzerapena burutzapen faseren bati badagokio.
- b) Santzio firmeak erabakitako paguei ezarriko zaie eta bertatik deskontatuko dira. Kontratuaren iraungipena ere erabakitzen bada horrek ez du adierazten santzioek kalte-galeren ordainak ordezkatzeko dituenik eta hori ere eskatu ahal izango zaio.

Aurrikusitako santzioak pilatuz joango dira arau haustek bat baino gehiago direnean.

12.- KARTOGRAFIA

Udalak Plan Partziala, Birpartzelazio Egitasmoa eta Urbanizazio Egitasmoa burutzeko beharrezko den kartografia guztia emango du, eta hala behar izanez gero planu zehatzen egintza kontratatuko duelarik.

Horretarako, Adjudikaziodunak Udalari adierazi beharko dio zein planu behar dituen, eta hala behar izanez gero planu horiek egin egin beharko balira denbora aski egoteko moduan.

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- PLAN PARTZIALAREN EDUKIA

Plan Partzialak ondorengo agiri hauek edukiko ditu:

- Antolamenduaren eta bere erabakian Memoria Justifikatzailea.
 - Egitasmo Planuak.
 - Ordenantza Erregulatzailerak.
 - Etapa Ezberdinen Plana.
 - Ikerketa Ekonomiko-Finantziera.
- a) Memoriak antolamendua Lizartzako Udalerriko Arau Subsidiarioen jarraipideetara egokitzea justifikatu beharko du, ondorengo gaiei buruz aritu beharko duenari:
- Hirigintzari buruzko informazioa.
 - Sektorearen antolamenduaren helburuak eta erizpideak, Arau Subsidiarioko, egiaztatutako informazio urbanistikoaren eta burututako ikerketa osagarrien baitan.
 - Egon daitezkeen aukeren azterketa eta dagokionean analisi ponderatua.
- b) Memorian dagoen informazio urbanistikoak, zeinak Plan Partzialean xedatutako antolamenduaren euskarri faktikoa eratu beharko bait du, ondorengo aspektuak hartu beharko ditu kontutan behinik behin:
- Geologiko, Geotekniko, Topografiko eta beste zenbait motako lurraldearen ezaugarri naturalak.
 - Dauden erabilpen, eraikuntza eta azpiegiturak.

- Lurzoru Jabegoaren egituraren analisi laburra.
- c) Informazio eta antolamendu planuak Planeamendu Urbanistikoaren Araudiko 59. eta 60. artikuluek agindutakora egoki beharko dira, eta gutxienez:
- Informazio Planuak:
 - Kokapen planua, Arau Subsidiarioetan aurrikusitako egitura organikoekin lotua. 1/5000 Eskalan.
 - Arau Subsidiarioetan xedatutako Antolamendua. 1/1000 Eskalan.
 - Lursailen egungo egoerari buruzko informazioa, 1/1000 eskalan, topografia, katastroa eta eraikuntzak, erabilpenak, azpiegiturak eta landaredia nabarmena, hala behar bada, bateraturik.
 - Antolamendu Planuak:
 - Zonaketako 1/1000 eskalan egindako planua xehatutako erabilpenen, espazio libreen sistema, zonalde berde, hornikuntzarako espazio, euren arteko eta bide sareekin duen zerikusia.
 - Bidesarearen 1/1000 planua luzerako eta zeharreko perfilak, bidesare osoaren lerrokadura, oinezkoena barne, goitikako bistan egindako bere trazaketa eta behinbetiko sestrak geometrikoki definituz, eta aparkalekuko aurrikuspenak.
 - 1/1000 Planua ur, ureztapen eta suteetako urpaldo hornikuntza, estolderia, energia elektrikoaren banaketa eta kaleen argiztapen sareen eskema.

- 1/1000 Eskalan egindako planua, bertan iharduketa poligonoen mugapena egiten delarik, hala behar denetan.
- d) Plan Partzialeko Ordenantzek lursailen eta eraikuntza publiko eta pribatuen erabilpena arautuko dute ondorengo ataletan esaten denari eutsiz:
- Kontzeptuaren orokortasun eta terminologia.
 - Ondorengo kasuei erreferentzia egiten dien lurzoruaren Hirigintz Eraentza:
 - Lurzoruaren kalifikazioa, xehatutako erabilpenen adierazpen zehatzarekin.
 - Ikerketa zehatzak.
 - Lurzatiketak.
 - Ondorengo kasuei erreferentzia egiten dien eraikuntz arauak:
 - Bide Publikoei buruz erreferentzia egiten duen lanen baldintza teknikoak.
 - Ondorengoari buruz zona guztientzako berberak diren baldintzak:
 - Eraikuntza.
 - Bolumena.
 - Xehatutako erabilpenak ondorengo adierazpenekin:
 - Derrigorrezkoak, higijene eta estetikako proportzio minimoak adieraziz, eta zeintzu diren kokatzen diren inguruarekiko adaptazio baldintzak.

- Zilegiak.
 - Debekatuak.
 - Zona bakoitzarentzat arau partikularrak.
- e) Etapen Plana eta orientaziozko Egitaraua aurkeztuko dira, denboraren arabera egina eta Udalaren ahalmen ekonomikoei egokituriko Planean aurrikusitako ihardueren burutzapenerako, era berean, Planeamendu Araudiaren 62. eta 63. artikuluetan adierazten denarekin bat etorritik aipatu planaren burutzapenaren emaitza eta ezarri ahal izango diren gestio sistemen erabilpena kontutan hartuz.
- f) Plan Partzialeko xedapenak Planeamendu Araudiko 45. eta ondorengo artikuluetan aurrikusitakora egokituko dira.

2.- URBANIZAZIO EGITASMOA

- g) Urbanizazio Egitasmoak Plan Partzialean aurrikusitako urbanizazio lanen egitasmoak bilduko ditu, honakoak esaterako:
- Galtzada, aparkaleku, espaloi, sare peatonal eta espazio libreen zolaketa.
 - Edateko, ureztapenerako eta suteetako urpaldoetarako ur banaketaren sarea.
 - Euri eta hondakin uren irazketarako estolda sarea.
 - Energia elektrikoaren banaketa sarea.
 - Kaleko argitazpenaren sareak.
 - Lorazantza espazio libreen sisteman.

Halaber, Udalerriko zerbitzu urbanistikoaren eta orokorren arteko lotgunea konpondu beharko du, batez ere errepideei dagokiona.

- h) Urbanizazio Egitasmoak obralanak beharrezko den dohitasunez xehatu eta arautu beharko ditu, Egitasmoaren egileak ez diren teknikoek bete ahal izan dezaten.
- i) Egitasmoak ondorengo agiriak barneratuko ditu:
 - Lanen ezaugarrien Memoria deskribatzailea.
 - Informazio eta kokapen planuak.
 - Egitasmoaren eta xehetasunen planuak.
 - Lanen eta zerbitzuen baldintza tekniko eta ekonomiko administratiboen Pleguak.
 - Neurketak.
 - Deskonposatutako prezioen taulak.
 - Aurrekontua.

3.- LURREN BIRPARTZELAZIO EGITASMOA

- j) Birpartzelazio Egitasmoa Plan Partzialarekin batera izapidetuko da, nahiz eta bere behinbetiko onespena Plan Partzialaren onespeneren baitan egon.
- k) Birpartzelazio Egitasmoak ondorengo agiriek osatuko dute:
 - **Memoria:**
 - Hori eragingo duten zirkunstantzia edo akordioek eta hala

dagokionean ematen diren berezitasuneak.

- Birpartzelazio unitateen deskribapena.
 - Adjudikaturiko azalaren baloraziorako erizpideak.
 - Adjudikaziorako erizpideak.
 - **Jabeen edo Interesatuen zerrenda**, bere eskubideen izaera eta zenbatekoa adieraziz.
 - Ondorio diren finen **adjudikazio proposamena**, bakoitzari dagokion probetxamendu urbanistikoa adieraziz, eta adjudikaziodunen izendapen nominala.
 - Plana betetzeko iraungi edo deuseztu behar diren eskubideen, eraikuntzen, eraiketen edo landen **tasazioa**.
 - **Behinbehineko likidazio kontua**.
- l) Planuak eskalan eta aipatutako Gestio Urbanistikoaren Araudiko 84. artikulua zehaztapenei eutsiz idatzi beharko da, Plan Partzialarekin batera izapidatzen den kasuan ondorengoetara murriztu:
- Biltzen dituen finen planua, Plan Partzialaren eskalan egina eta egungo egoera erakusten duen bati gainjarria.
 - Adjudikaturiko finen planua, finen mugak adieraziz, Plan Partzialaren antolamenduari dagokion bati gainjarria.

U-1 Industri Sektorearen Plan Partziala, Birpartzelazio Egitasmoa eta Urbanizazio Egitasmoaren Erredakzio Kontratuzorako Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Plegua, aho batez onartu da.

U-1 INDUSTRI SEKTOREAREN PLAN PARTZIALA, BIRPARTZELAZIO

EGITASMOA ETA URBANIZAZIO EGITASMOAREN ERREDAKZIORAKO KONTRATAZIOAREN ADJUDIKAZIOA

U-1 Industri Sektorearen Plan Partziala, Birpartzelazio Egitasmoa eta Urbanizazio Egitasmoaren Erredakziorako Kontratatorako, U-1 Industri Sektorearen Garapenerako, LKS Ingeniaritzak aurkeztu duen, Ingeniaritzako eta Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuen eskaintza ikusirik.

Eskaintza horrek, hitzez hitz, honela dio:

INGENIARITZAKO ETA AHOALKULARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUEN ESKAINTZA LIZARTZAKO (GIPUZKOA) "U-1" INDUSTRI SEKTOREAREN GARAPENERAKO

1. AURREKARIAK ETA ESKAINTZAREN HELBURUA

Lizartzako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetan, 1.988ko Ekainaren 14ean, Gipuzkoako Foru Aldundi Goreneko Diputatu-Kontseiluan onarturikoetan, aurikusirikoari jarraiki eta 1.988ko Abenduko Testu Bateratuan egindako idazketaren arabera, urbanizatzeko den lurzoruan, U-1 izeneko sektore bat sailkatzen da, industri-izaera duena; berorrek, dagoen eraikuntza sendotzen duelarik, 44.630 m²ko azalera hartzen du eta 16.987 m²ko eraikigarritasuna.

Dagoeneko lau urte daramate Arauek indarrean eta sektore horren burutzapenari dagokionean, jabeen interesa pizteko ahaleginak behin eta berriz egin ondoren, Udalak sektore horren gestioa kontratatzeko deialdia egiten du. Egitasmo hori, Plan Partzialaren Idazketa, Birpartzelaketa eta Hirigintz Proiektuak eratzen dute.

Arrazoi hori dela eta, aipatu dokumentuen idazketa eskaintzen da, Udal ekimenaren berri eman asmoz.

2. ESKAINTZAREN EDUKINA

2.1.- Topografia

Kapitulu hau, ingeniari-tza honetakoa ez den enpresa batek egin da; beraz ez da eskaintza honen helburu. Dena den, poligonoaren garapen globalerako beharrezko balitz, arlo honetako zerbitzuak ere eskaintzen ditugu.

2.2.- Plan Partziala

Atal honen barruan, ondorengo fase eta lanak aurrikusi dira:

- **Ordenazioaren Aurrerapena**

Behin-betiko dokumentuaren idazketaren aurretik, Udalak bere irizpideak formulatzeko garrantzitsua erizten zaio.

- **Behin-betiko Dokumentua**

Dokumentu hau ezinbestekoa da Plan Partziala tramitzeko eta behin-betikoz onartzeko.

- **Hirigintz Gestioak**

Atal honetan, hirigintz espedientearen tramitazioaren ondoriozko erakusketa-aldi publikoetan sor litezkeen iradokizun edo sugerentziei eta alegazioei erantzuteari dagokionean, Udala aholkatzeko beharrezko lanak sartzen dira.

- **Gestio Teknikoak**

Proiektuen garapen egokirako, erantzukizuna duten administrazioekin eta zenbait entitatekin beharrezko harremanak izatea suposatzen du.

Gestio horiek fase honetan egitea komeni da, Plan Partzialaren ondorengo proiektuen egokitzapenean sor daitezkeen zailtasun posibleak ekiditeko.

Hasierako aurrikuspen gisa, egin beharreko gestioen artean hauek azpimarratuko ditugu:

- Eusko Jaurlaritza
- Gipuzkoako Aldundia
- Lizartzako Udala
- Confederación Hidrográfica del Norte de España
- Iberduero
- Telefonica
- Gas Euskadi
- e.a.

Azkenik, hirigintz espedientetik sorturiko testu bateratuen prestaketari dagozkion lanak ere sartuko dira.

2.3.- Hirigintz Proiektua

Prozesu honen barruan burutu beharreko hurrengo dokumentua da. Hirigintza publikoko obra guztiak -Plan Partzialean projektaturikoak- xehetasun osoz zehaztuko dira, eta obra horiek lizitatu ahal izateko dokumentua izango da.

2.4.- Konpentsazio -edo Birpartzelaketa- Proiektua

Hirigintz espedientea nolabait itxi egiten duen dokumentua izango da, adjudikaturiko partzelen zehaztapenarekin eta afektaturiko jabeen hirigintz eskubide eta kargen ondorioz.

2.5.- Eraikuntz Proiektuak

Gai honi dagokionez, pabiloien eraikuntz proiektuen garapen egokirako, ingeniariak honek bere zerbitzu guztiak eskaintzen dituela esango dugu; izan ere, arlo honetako esperientzia luzea izanik, oinarrizko zerbitzuetako bat baita -honekin batera doan dokumentuan ikusi ahal denez-.

Atal honen barruan, honako hauek ere sartuko dira zerbitzu gisa:

- Eraikuntz Proiektua.
- Urbanizazio pribatuaren proiektua.
- Iharduerak legezatzeko proiektuak eta ekintza nekagarri, kaltegarri, osasungait eta arriskutsuen proiektuak.
- Eraikuntzetako segurtasun eta higienari buruzko azterketak.

2.6.- Obren Zuzendaritza

Atal honetan ere, Ingeniaritzak obren Zuzendaritza Tekniko eta Kontrol Ekonomikorako, bere zerbitzuak eskaini ditu, bai urbanizazio publikoko obrei bai industri eraikuntzei dagokienean.

Azken bi (2) atal horiek, ordainsarien aldetik zehaztu gabe daude; izan ere, zerbitzu-eskaintza gisa baino ez bait dira sartu, Udalak horien berri izan dezan.

3. LAN-TALDE ETA ELKARLANAK

Eskaintako lanen garapen egokirako, arkitektur eta ingeniariak-gaiak LKS, Koop. Elk.ak burutzea pentsatu da, eta horren osagarri, aholkularitza juridiko-urbanistikorako, arlo honetan esperientzia handia duen EKAIN enpresaren laguntza izatea, gainera, azken honekin harreman handiak ditugu elkarrekin burutzen ditugun lan bateratuak direla eta.

4. BALDINTZA EKONOMIKOAK

4.1.- Plan Partziala

Industrialdearen azalera 44.630 m²koa izango den balizkotik abiatu gara.

Bide-Ingeniariaren Kolegioaren tarifen arabera, ordainsariak 1.240.000 pezetakoak beharko lukete izen (%20ko murrizketa barne).

Baina kontutan hartzen badugu, bidaien eta dieten atala kanpo uzten dituela eta planeamendu-fase honetan, gehienetan, bilera asko egin behar izaten direla -bai jabeekin eta bai Udalarekin-, ordainsarien azken kopurua 1.500.000 (MILIOI BAT, BOSTEHUN MILA) pezetakoa izango da.

4.2.- Hirigintz Proiektua

Sail honetarako urbanizazio publikoko obren kostua 100.000.000 pezetakoa izatea jo da, Udalak aurreratutako ordenantzaren arabera. Horri dagozkion ordainsariak 2.850.000 (BI MILIOI, ZORTZIEHUN ETA BERROGEITAMAR MILA) pezetakoak dira.

Dokumentu honi oraindik kolegioak ikus-onetsia eman behar dionez, ordainsari hauek gutxi gora-beherakotzat hartu behar dira behin-betiko dokumentua idatzi eta azken aurrekontua ezagutu arte, orduan zehaztuko baitira.

4.3.- Konpentsazio -edo Birpartzelaketa- Proiektua

Dokumentu honek, eskuarki, kontzertaturiko tarifa bat ematen du; kasu honetan, 2.000.000 (BI MILIOI) pezetako kopurua eman du lehen balioespenean.

Ordainsari hauek alde batera utzita, Konpentsazio-Juntaren Oinarri eta Estatutuak egiteko laguntza eta aholkuak ere eskaintzen dira, aukeratutako gestio-sistema Konpentsaziokoa izanez gero.

Ordainsari hauetan BEZa ez dago barne.

5. EPEAK

Proiektu hauek gauzatzeko ingeniari-tza honek aurrikusitako epeak, ondorengo hauek izango dira, Udalaren aldetik zehaztasun gehiago jasotzen ez bada:

PLAN PARTZIALA

- Hasierako onespina jasotzeko eginiko dokumentua: Azaroak 30.
- Alegazioei erantzutea: 15 egun bidaltzen denetik.
- Testua egokitzea behin-betiko onespina jasotzeko: hilabete.

BIRPARTZELAKETA PROIEKTUA

- Plan Partzialaren Idazketarekin batera hasiko da.
- Behin-betiko onespina: gehienez ere 2 hilabete Plan Partziala behin-betiko onestu ondoren.

HIRIGINTZ PROIEKTUA

- Udal enkargua gainerakoarekin batera egiten bada, Birpartzelaketa-Proiektuarekin batera onetsiko da.
- Enkargua geroago etorriz gero, lanek gutxi gora-behera lau hilabeteko denbora beharko dute.

6. ORDAINKETA-ERA

Eskaintza adjudikatu ondoren Udalarekin hitzartzekoa, nahiz eta gehienetan Ingeniarien Kolegioaren bitartez egiten den, beharrezko dokumentuak

ikus-onetsi ondoren.

7. BALDINTZA OROKORRAK

Bide-, Ubide- eta Portu-Ingeniariaren Kolegioak une bakoitzean zehaztuko dituenak.

Ikusirik, onartutako, U-1 Industri Sektorearen Plan Partziala, Birpartzelazio Egitasmoa eta Urbanizazio Egitasmoaren Erredakzio Kontratatorako Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Plegua.

Ikusirik, LKS Ingeniaritzak aurkeztutako, Lizartzako "U-1" Industri Sektorearen Garapenerako, Ingeniariatziko eta Aholkularitza Juridikoko Zerbizuen Eskaintza.

Ikusirik, LKS Ingeniaritzak aurkeztu duen eskeintza, ZAZPI MILIOI EHUN ETA HIRUROGEITAMABOST MILA (7.175.000) pezetara igotzen dela, BEZa barne delarik.

Gaia eztabaidatuz gero, Udal honek aho batez, zera erabaki du:

- a) LKS Ingeniaritzari adjudikatzea, U-1 INDUSTRI SEKTOREAREN PLAN PARTZIALA, BIRPARTZELAZIO EGITASMOA ETA URBANIZAZIO EGITASMOAREN ERREDAKZIOA, 7.175.000 pezetatan, berak aurkezturiko eskeintzaren neurritan eta Udal honek onarturiko, "U-1" Industri Sektorearen Plan Partziala, Birpartzelazio Egitasmoa eta Urbanizazio Egitasmoaren Erredakzio Kontratatorako Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Pleguaren zerrendapean.
- b) Erabaki hau adjudikatariorari adieraztea.

Aldi berean, Hirigintza Batzordeko Partaidea den, Julian Zubeldia Aierbe Jaunak, gai honi buruz honela dio:

Lizartzako Arau Subsidiarioak (1.988ko Ekainaren 14ean, Diputatu Kontseiluan onartuak eta 1.988ko Ekainaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak), behin-betiko onartu zirenetik, 4 urte pasa direla.

"U-1" Industri Sektorearen, gutxienik 60%a ordezkatzen duten lur-jabeek, ez dituztela estatutoen proiektua eta ekintzapideen oinarriak aurkeztu.

Honako hau kontutan izanik, legeak dioenez, plan bat behin-betiko onartzen denetikan, 3 hilabete igarotzen badira poligono baten, luze-zabaleraren edo ekintzapide unitate baten gutxienik 60%a ordezkatzen duten jabeek, estatutu proiektua eta ekintzapide oinarriak aurkezten ez badituzte, ari den hirigintzazko administrazioak, 3 hilabeteko epean aipatutako agiriak aurkeztu ditzaten eskatuko du. Aurkezten ez badituzte, Administrazioak, kitapidetasun-erapidetzaren ordeztu, gestio-araudian aurrikusten den beste sistemaren bat erabiliko du, planak aurrera eramateko.

Horren arabera, eta gaur egundaino, Udal honen aurrean, lur-jabeek agiririk aurkeztu ez dutenez, goian adjudikatu den Plan Partzialaren bidez, sistema aldaketa egingo dela.

1.992KO AURREKONTU OROKORRAREN KREDITU ALDAKETA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 1.992ko Uztailaren 3an, Uztailaren 3ko 5/1992 Foru Araua, 1.992rako Udal Finantziazioaren Foru Fondoa onartu zuen, zeinean, Lizartzako Udalari guztira, 45.554.091,- pezetatako kopurua tokatzen zaiola agertzen da. Beraz, Udalak onartutako, 1.992ko Aurrekontu Orokorraren agertzen den baino, 10.235.240,- (HAMAR MILIOI BERREHUN ETA HOGEITAMABOST MILA BERREHUN ETA BERROGEI) pezta gehiago.

Horren arabera, Alkateak, zera proposatu du:

1.992rako Udalak onartutako, 1.992ko Aurrekontu Orokorraren Kreditu Aldaketa Espedientea onartzea, gehiago izango den diru-sarreran horren arabera, gastuak ere gehituz.

Guzti hori kontutan hartuaz, honela geldituko litzake, 1.992ko Aurrekontu Orokorraren Kreditu Aldaketa Espedientea:

SARRERAK GEHIAGO

Zerga Itunduetan Partaidetza 10.235.240,- Pezta

IRTEERA GEHIAGO

U-1 Sektoreko Plana 6.175.000,- Pezta
Zerbitzutarako Ibilgailua 2.100.000,- Pezta
Ibilgailuaren Asegurua 200.000,- Pezta
Festetako Batzordea 150.000,- Pezta
Proiektuak 1.610.240,- Pezta
(Uretako Zubiaren Proiektua,
Iturri-Aurre Etxea Botatzeko
Proiektua. e.a.)

GUZTIRA 10.235.240,- Pezta

=====

Eztabaidarik gabe, 1.992ko Aurrekontu Orokorraren Kreditu Aldaketa Espedientea, aho batez onartu da.

ZERBITZUTARAKO IBILGAILUA

Alkateak hitza harturik, zera dio:

Lizartzako Udalak, betidanik, Zerbitzutarako Ibilgailu baten beharra ikusi du.

Gaur egundaino, gauz batengatik edo besterengatik, gehienbat diru faltagatik, atzeratzen joan den gaia izan da.

Aurreko puntuan aipatu dugun, Diputaziotik datorren diru gehikuntza horrek posibilitatzen du, Udalaren betiko amets hori, bete ahal izatea.

Horren arabera, Tolosaldeko hiru etxeei, beren aurrekontuak aurkezteko eskatu zitzaien, eta hauek dira aurkeztutakoak:

SEAT ALAI, S.A. Terra Ibilgailua	1.089.500,- Pezta
IROVISA. Santana 2,5 Ibilgailua	2.050.000,- Pezta
DANIEL BARCOS, S.A. Nissan Patrol	2.536.850,- Pezta

Eskaintza hoiek aztertu eta eztabaidatuz gero, IROVISA Etxeak aurkeztutako, Santana 2,5 Ibilgailuaren eskeintza iruditzen da egokiena.

Horren arabera, IROVISA Etxeak aurkeztutako, Santana 2,5 Ibilgailuari dagokion, 2.050.000,- peztatako aurrekontua aho batez onartu da.

UDALETXEKO PROIEKTUA

Alkateak hitza harturik, Udaleko Arkitektoa den, Pilar Amenabar Zabala Andreak aurkeztu duen, "LIZARTZAKO UDALETXEAREN BERRIKUNTZA" Proiektua eta berari dagokion Baldintza Ekonomiko Administrazioen Zerrenda aurkeztu ditu onarpenerako, eta azken honek, literalki honela dio:

"LIZARTZAKO UDALETXEAREN BERRIKUNTZA" PROIEKTUKO OBRAK KONTRATATZEKO BALDINTZA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN ZERRENDA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da, LIZARTZAKO UDALETXEAREN BERRIKUNTZA deritzeaion proiektu teknikoko obren exekuzioa.

Kontratu honen xedeko obrak, LIZARTZAKO UDALETXEAREN BERRIKUNTZA proiektu tekniko eta obrako zuzendariak emango dituen gainerantzeko adierazpenen arabera exekutatuak izango dira.

2.- AURREKONTUA

Kontrataziorako izendatzen den gehieneko prezioa, 24.261.643,- pezta da, non sartzen diren: obren exekuzio materiala, industri irabaziak, gastu orokor eta zergak, BEZ delakoa barne eta obra zuzenketako honorarioak.

Kontratako prezioa, adjudikazioan irtetzen dena izango da.

Aipaturiko aurrekontuari era honetan aurre egingo zaio:

1.991ko Udal Beraren Aurrekontuaren gain, 5.000.000,- Pezta.

1.992ko Udal Beraren Aurrekontuaren gain, 19.261.643,- Pezta.

Lizartzako Udalak konpromezua hartzen du, 1.992ko Udal beraren Aurrekontuan, urtealdi honen kontura finantziaztea tokatzen den diru kopuruarekin partida jartzeko.

3.- BURUTZE EPEA

Obra guztia burutzeko, 1.993ko Martxoaren 31 arterainoko epea ematen da.

4.- PARTAI DEN ESKUBIDE ETA BETEBEHAR BEREZIAK ORDAINKETARI DOAKIO NEZ BERARIZKO AIPAMENAREKIN

4.1. Gizarte Segurantzza eta Babeseko Legegintza

Kontratastak bere gain izango ditu lankidetzara arloan, gizarte segurantzza eta lankuntzako segurantz eta osasunbidetzara indarrean dauden legedi guztiak, kontrataturiko obra egiterakoan erabiltzen duen langileei

doakienak. Kontratastaren aldetik betebeharr hau ez betetzeak ez dio inolaz ere inungo erantzunkizunik ekarriko Lizartzako Udalari.

4.2. Kontratastaren Beste Bete Behar Batzu

Adjudikazioko oinarriean suskribitzen den kontratotik irtetzen direnak izango dira.

Kontratoaren indarreko epean eta beren behinbetiko harrera arte kontratastak erantzungo du, Lizartzako Udal, berdin hirugarren pertsona, eta beren ondasun eta eskubideetan istripu eta kalteak, berak zuzenean edo bere egile, langile eta azpiakura bidez ekarritagatik.

Kontratastak obra zainduko du bere behin-behineko harrera Administrazioak egin arte.

Lizartzako Udala eta obren zuzendaria, kontratista edo bere zerbitzura aritzen diren pertsonen ihardueragatik irten daitezkeen egintzetatik guztiz liberatuak geratuko dira.

Kontratastak aurre egin beharko die obrako material edo instalaketan sortu daitezken gaiei eta lapurketa eta kalteen erantzunkizunei.

Obren behin-behingo harrerako agiria idatzi arte, segurantzaren etxe batekin, erantzunkizun guztiak betetzeko behar hainbat segurantzaren poliza kontratatzea behartua dago kontratista eta bere ordainketa egitea. Hain zuzen, segurantzak, gutxien puntu hauek sartu behar ditu:

- a) Obraren parte hartzen duen pertsonal guztien gizarte segurantzaren eta lan istripuek, beroiek benetan jasotzen duten soldata guztiagatik.
- b) Lizartzako Udalari edo bere agentei, ordezkari, eraikuntza edo hirugarren pertsonen sortu dezaioketen kalte material edo pertsonalaren erantzunkizun zibila.

- d) Material, atuxa, instalaketa eta beste zuzkiketei sortu dezaieketen kalteak.

Kontratoaren exekuzioa kontratistaren arrisku eta ondorioetara egingo da eta honek ez du izango, obran izan dezazkeen gaiera, aberi edo kalteengatik diru-ordainketaren eskubiderik.

4.3. Ordezkaritza

Kontratatik obran ordezkaritza iraunkorra edukiko du, pertsona kalifikatu eta gai denaren bidez.

Ordezkaritza honen izendaketa eta bere ordezkatza, Lizartzako Udalak eta obrako zuzendariak, aurrez, onartua izan beharko dira.

Ordezkaritza behar hainbat ahalmen edukiko du, kontratistaren izen eta kontura, obrako zuzendariarengandik aginduak jaso eta betetzeko neurriak ekartzeko.

Kontratatik obrako pertsonalaren eraginkorrak, izendaturiko epean lanak exekutatzeko behar hainbekoak izango dira.

4.4. Material, Atux eta Enplegu Gabeko Tresnen Erretiraketa

Obra guztiak amaitzean kontratista behartua egongo da, lan alderdia eta erabilitako lekuak argitu, garbitu eta konpontzea, behar bada. Ez baluke egingo, Lizartzako Udalak egin dezazke lan horiek kontratistaren kontu eta kargura, ordaintzen dituen kopuruak, ordaindu gabe dauden ordainketa eta ipinitako bermetik kenduaz.

4.5. Zergapidetzazko Betebeharrak

Kontratatik betebeharreko zerga ordainketen egunean egongo beharko

dute.

4.6. Ordainketarako Era

Kontratatik eskubide edukiko du benetan egiten duen obra, komeni izandako prezioarekin ados kobratzeko.

Ordainketak egiteko, obrako zuzendariak hilero, egindako obren ziurtagiriak luzatuko ditu.

Kontratatari egiten zaion ordainketak, ziurtagiri horietatik irtetzen direnak, kontu honeko ordainketen kontzeptuan egingo dira eta azken neurketatik irtetzen diren ziurtagiri eta aldaketei lotuak geratuko dira, inolaz ere suposatuko ez duelarik obren onarpen eta harrerarik.

Lizartzako Udalak ordainketak kontura egin dezazke kontratatik prestakuntzarako egiten dituen operazioengatik. Adibidez: Instalazio, obrako material edo pisuko makinaria ekipo pilaketagatik.

Azken kasu honetan, ordainketa horiek Udalaren onarpena beharko dute. Aurrez ordea kontratatari kopuru berdineko bermea Udaletxean jarriaraziko zaio.

Ordainketak, obrako ziurtagirien datatik hiru hilabete barru ordainduak izango dira, Udalak onartu ondoren.

5.- OBREN BEHIN-BEHINGO ETA BEHIN-BETIKO HARREREN ARTEAN IRAGAN BEHARREKO BERME EPEA

Obrak amaitzen direnean, Udalak behin-behingo hartuak izango dira, zuzendariak bukaerako ziurtagiria luzatu ondoren.

Behin-betiko hartzea, epe hortatik urte batetara, gutxienez, egingo da, epe hau izendatuaz obren bermeko era bezala.

Azken hau amaitu ondoren, hurrengo 10 egunen barru, obren zuzendariak txostena luzatuko du, non erasotuko du eginiko obrak betetzen dituzten edo ez kontratoaren baldintzak eta bereziki baldintza teknikoak: jakinaraziko du zerbitzu instalaketen segurantzaren baldintzari buruz, zeinen aurkako txostenak, berorien baliogabetasuna eta ordaindutakoaren itzulpena finkatuko du, beren instalaketa eta funtzionamendurako behar hainbat kopuru eskuratu arte.

Kontratistak, behin-betiko obra hartzeko agiriaren kopia bat jasotzeko eskubidea izango du.

6.- PREZIOEN BERRIKUSTAPEN EZA

Kontratu honetan ez da aplikagarri izango prezioen inongo berrikustapenik.

7.- KONTRATOAREN ADJUDIKAZIOKO ERA

Kontratazio zuzeneko sistema erabiliko da.

3 Kontratisten eskaintzak gutxien eskatuko dira.

8.- LIZITAZIO TIPOA

Lizartzako oinarrizko prezioa, HOGEITALAU MILIOI BERREHUN ETA HIRUROGEITABAT MILA SEIEHUN ETA BERROGEITAHIRU (24.261.643,-) peztakoa izango da "LIZARTZAKO UDALETXEAREN BERRIKUNTZA" deritzaien proiektu teknikoan agertzen den aurrekontuaren arabera.

Hobekuntzak, oinarrizko lizitazioko tipoaren beharaka egingo dira.

9.- BANAKAKO PREZIOAK

Banakako elementuen porzentaiak honi erasten zaion aurrekontuan azaltzen den banakaketakoak dira.

Lehiatzaileen eskaintzak obrako unitate bakoitzarentzat prezioa izendatu beharko du tokatzen den kasilan aipamena eginaz.

Banakako prezio horiek obrako unitateekin biderkatuta ematen duen emaitzak obrako aurrekontua osatuko du.

Banakako prezioetan kostu guztiak sartuko dira, zergak, aseguruak, elektrabide, ur, bide, e.a.

Prezioak zenbateko gorajotzen izakera izango dute, non sartuko diren Lizartzako Udalak denagatik ordaindu beharreko guztiak, nori ez da egongo kopura handiagorik eskatzerik.

Ardulararitza gisa egin beharreko lanak egon ezker, aurrez obrako zuzendari eta Udal honek onartuak izango dira eta berdin erabiliko diren prezioak.

Obren azken balorapena beroien zuzendariak xedatua izango da, benetan egindako obra eta adjudikatarioaren eskeintzako banakako prezioen arabera.

Kontratatistak bere gain hartuko ditu kontratu honen xedeko obrak egiteko beharreko diren lanak. Horretarako, eskeintza egiterakoan, kontuan edukiko ditu: bideak, energia bitartekoen lekua, elektrabide, urbide eta obraren egiketa zuzentzen duten gainerantzeko bitarteko laguntzaileak.

Obrako unitateen banakako prezioak ez dira inoiz ere aldatuko, Udalak eta zuzendariak obren aldaketak sartu beharreko kasuan, hauen bolumena edozein dela ere.

Obrako zuzendariak, Lizartzako Udalarekin ados, beharrezko ikusten dituen aldaketak sartu ahal izango ditu eta orduan, handitu, aldatu, kendu edo gutxitu unitate batzu, obren kontratista adjudikatariari, horregatik, inungo eskabiderik garatzen ez zaiolarik.

Handikuntz, aldaketa, kenketa edo beherakadak, kontratatistak eskeinitako

prezioetan baloratuko dira, edozein nolakotasunekoak izan da ere eta obrak egiterakoan sortu daitezkeen kontratista eta Udalen arteko besteetan.

10.- BEHIN-BEHINGO ETA BEHIN-BETIKO BERMEAK

Kontratista adjudikatariora behartua dago, adjudikazio kopuruaren 4% berme bat Lizartzako Udaletxean ipintzea, behin-betiko bermegatik kontratua izenpetu aurrez, indarrean dagoen RCCL delakoaren 75. artikuluan agertzen diren edozein eratan.

Bermea baliogabe geratuko da obren behin-betiko harrera egitean, aurrez, kontratoekiko betebeharrak guztiak bete dituela adjudikatariorak baieztatuaz, horretarako, obren zuzendari eta kontuhartzailearen aldeko informak beharko direlarik eta probintziako Aldizkari Ofizialean publiko erakusketan egoten den epean kexarik ez egon.

11.- APLIKAZIOZKO LEGERIA ETA GAI DEN JURISDIKZIOA

Kontratuak administari izaera edukiko du eta baldintza zerrenda honen bidez zuzenduko da eta Apirilaren 2ko 7/85 zenbakidun lege, apirilaren 14ko 781/86 zenbakidun Errege Dekretu, RCCL, lehenago aipaturiko legeriaren dispozizioen aurka edo adostezinean ez dagoenez. Estaduko Kontratoen Lege eta Erregelamendu Orokorra izango direlarik ordezkari erabilgarri eta berdinean gainerantzeko Arduralaritza-Legea. Azkeneko honen ezean norbanakako-legearen arauak izango dira aplikagarri.

Kontratu honen ulermen, aldaketa, deusestatzen eta iharduerataz sortzen diren auzi arazoak, kontratazioko erakundeak erabakiak izango dira, berehalako eragite indardunak, zeinek arduralaritza bidea moztuko dute, bere aurka arduralaritza-azipideetatikako jazarpena aurkeztu ahal izango delarik. Epailaritza hori zuzentzen duen Legearen arabera.

12.- OBREN ZUZENDARI ETA ZAINGOTZA

Obren zuzendari eta zaingotza Udalak izendatzen duen tekniko zuzendariaren esku egongo da, norik emango dio kontratistari beraien arauzko eta eraginkortasunezko exekuzioraino beharreko diren oharpideak.

13.- BERRAURKEZKETA

Kontratua izenpetzen denetik 30 egun barru egingo da, obrako zuzendaritzapean, kontratistak esku lan laguntzailea jarri beharko duelarik.

14.- KONTRATU UZTE ETA AZPIAKURA

14.1. UZTEA.- Kontratistak ez du kontratorik hirugarren pertsoneri uzterik izango Udal honen baimena aurrez lortu gabe.

14.2. AZPIAKURAPENA Obra exekutatzekoan kontratistak, azpikurapenik egin nahi badu, Udalaren baimena lortu beharko du. Nahiz eta baimen hori lortu beti geratuko litzateke azpiakurapenean emandako kontratista Udal eta obrako zuzendariaren aurrean erantzule bakarra bezala.

Obraren exekuzioan kontratistak aldatu nahi balituzke edo azpiakurapen berriak sartu, hasieran proposatutakoen desberdinak, Udalaren baiezkotasuna lortu beharko du.

Subkontratista horiek kontratistarekin bakarrik izango dituzte harremanak eta ezingo dute inungo eskabiderik egiterik izango, Lizartzako Udal edo obrako zuzendariari.

15.- BAIMENAK

Kontratistaren kontu izango dira obrak egiteko beharreko diren baimen

guztiak.

16.- KONTRATAZIOAREN GASTUAK

Kontratazioaren inguruan sortzen diren gastu orokor guztiak kontratistaren gain joango dira eta horrela argitaratzen diren iragarki eta bestek.

17.- PROPOSAMEN AURKEZPENEA

Lizitari bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake. Elkartutako enpresek ezingo dute proposamenak banaka aurkeztu eta horrela egingo balute ez dira onartuko ez horiek ez elkartearenak ere.

Pertsona juridikoaren edo beste pertsona fisiko baten ordeztu edo sinatutako proposamenei dagokien ahalmena erantsiko zaie, notarioaren agiri publikoan emana eta Udaleko Idazkariak askietsia.

Proposamenak Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, 1.992ko Irailaren 18rako, lanegunetan, larunbatak ezik.

18.- PROPOSAMEN ZABALTZEA

Udaletxeko Bilkura Aretoan, eguerdiko ordu batetan, 1.992ko Irailaren 21ean.

19.- PROPOSAMENAK

Proposamenak, funtsez ondorengo ereduari etxikiko zaio:

..... Jaun/Andreakbizi dena, E.N.A. zenbakiduna, bere lege ahalmen eta iharduteko jabetzan (edo etaren ordezkartzan), hurrengo azaltzen du:

LEHENA.- LIZARTZAKO UDALETXEAREN BERRIKUNTZA deritzaion proiektua eta hori zuzeneko kontratazioko sistema bidez

kontratatzeko Baldintza Ekonomiko Administratiboen Zerrenda ezagutu eta onartzen dituela.

BIGARRENA Bere erantzunkizupean aitortzen duela enpresak gaitasun juridikoa duela eta obrak burutzeko nahiko baliapideak ere, eskatutako baldintza bereziak betetzen dituela eta indarrean dagoen legeriak adierazitako debeku kasuetan sarturik ez dagoela.

HIRUGARRENA.- Enpresa bere obligazio fiskalen ordainketan eta Aseguru Sozialaren aurrean egunean dagoela aitorten espresu eta erantzulea egiten duela.

LAUGARREN.- Adjudikaziodun gertatuko balitz bere eskaintzan dauden agiriaren arabera burutuko lituzkeela obrak eta onartutako Proiektu eta Pleguetako baldintzei estu lotuz nolana ere.

BOSTGARRENA.- Obra horiek 1.993ko Martxoaren 31rako burutzeko konpromezua hartzen duela, aipatutako Proiektuari eta Klausula Administratiboen Pleguari lotuz (Hizkiz eta zenbakiz) peztatan, non sartzen diren, obren exekuzio materiala, industri irabaziak, gastu orokor eta zergak, BEZ delakoa barne eta obra zuzenketako honorarioak eta berdin obra egiteko beharreko beste guztiak.

Lizartzako Udaletxearen Berrikuntza Proiektua eta obrak kontratatzeke baldintza ekonomiko administratiboen zerrenda, aho batez onartu da.

NARBAITZUKO EGUR PROBETXAMENDUA

Pasatako Uztailaren 6ean, Narbaitzuko Egur Probetxamendurako Enkantea ospatu zen.

Bertara aurkeztutako proposamena, bakarra, Tolosako Maderas Almirantek, ZORTZIEHUN ETA HAMAR MILA (810.000,-) peztatkoa izan zen.

Eginiko proposamena, Enkanteko lizitazioaren oinarritzko preziora iristen ez zenez, Enkantea hutsik utzi zen.

Horrenbestez, bigarren aldiz publikatu beharra dago, baina oraingoan, 20% lizitazioaren oinarritzko prezioa jetxita. Hau da: 856.800,- Peztatan.

Narbaizuko Egur Probetxamendua, 856.800,- peztatako oinarritzko prezioarekin, bigarren aldiz subastara ateratzea, aho batez onartu da.

TOLOSALDEKO PLAN ESTRATEGIKOA

Alkateak hitza harturik, Tolosaldeko Plan Estrategikoaren berri eman du, eta hitzez hitz, honela dio:

EGITASMO ESTRATEGIKOA

1.- Egoera Orokorra

Azken urte hauetan, krisialdi ekonomikoaren kolpeak orokorrean izan du eraginik industri-sarean. Halere, krisialdiak egin du zertxobait atzera ere, nolabaiteko garapen ekonomikoari aukera emanez, nahiz eta prozesuak halako ahultasunak ere agertzen dituen, eta aipatu beharrekoak:

- Industri-birmoldaketa eta eskariaren bultzada ez dira hainbeste etorri ohizko merkatuak zabaltzeagatik, baizik eta merkataritza espainiarrera biltzeagatik. Atzerriko merkatuak bilatzeari ez zaio ekin dibertsifikazio edo presentzia egonkorrean.
- Era berean, birmoldaketa honek ez ditu errekurtsoak sortu, iharduera berrietan inbertsio-ahalmen haundiagoa eskatzen duten prozesuei ekiteko, eta bere ondorioa geldialdia eta langabeziaren areagotzea da.

Bi errealitateak zuzen-zuzenean nabari dira Tolosako iharduera

ekonomikoan, bere industri-enpleguaren zati handia paperaren sektorean txertatuta dagoelarik, dinamismo eskaseko sektoretzat jota dagoena eta berregokitze eta modernizaziorako sektore-egitasmorik garatu ez duena.

Bestalde, azpimarratu behar da hirugarren sektorea, orokorrean enplegua sortzeko ahalmena duen sektorea bezala kontsideratua, Tolosako kasuan merkatari minoristez osaturik dagoela, eta aurreikuspenak ez direla oso baikorrak bidezko neurriak garaiz hartzen ez badira (merkatal elkartzea, eskainita produktuetan espezializatzea).

Era berean, teknologi-zentruen falta somatzen da, ohizko sektoreak eguneratzeko eta iharduera berriak sortzeko prozesuetan aitzindari izango direnak.

Halere, nahiz eta gure iharduera sozio-ekonomikoaren egoera kazkarra izan, Tolosako enpresek ez dute aukerarik izan inbertsiorako laguntza komunitarioak jasotzeko, Tolosa ez bait dago kontsideratuta GIZ (Gain-beherako Industri Zonaldea) modura, gertu dauden beste zonalde batzu programaren barruan sartu badira ere, esate baterako, Andoain edo Lasarte.

Guzti honek agerian jartzen du Tolosak ezin dituela laguntza europearrak eskuratu, bere egoera ezerosoa izan arren.

Aurrerago hausnartutako puntu guztien ondorioz indar ekonomikoaren galera somatu da, eta inizatibak hartu beste erremediorik ez dago Tolosaren geldialdi ekonomikoari aurre egiteko, eta ezin ere bestelako erakunde publikoetatik (Diputazioa) edo inguruko eskualdeetatik (Urola Garaia, Irun....) ekonomi-birsortze prozesuetatik isolatuta geratu.

Guzti honen inguruan, sare ekonomikoa ugaritzea da lortu beharreko helburua, eta bultzatu egin beharko dira iharduera berrien sorrera eta enplegu kopuruak, abiapuntu modura geure baliabideen analisisia egin eta ondoren indartz.

2.- Administrazioaren Zeregina

Lehen esandakoaren haritik, Administrazio Lokalak, herritarrekin oso harreman zuzen eta estuak dituztelako edo, behartuta dauden beren Udalerrietako egoera sozio-ekonomikoei aurre egitera.

Aipatu ekintza hori aurrera eramateko erabilitako bitartekoa Egitasmo Estrategikoak bultzatzearena da, geldialdi eta gain-behera industrialari eta epe ertainerako estrategia ezarri aurre egiteko.

3.- Egitasmo Estrategikoa

3.1.- DEFINIZIOA

Garapen ekonomiko eta sozialerako proiektuak, ondorio bezala, ekintza koherente eta koordinatu multzoa martxan jartzea ekarriko du, egitasmoaren helburu den lurraldean eragina duten agente ekonomiko eta sozialen eskutik.

3.2.- HELBURUAK DIRA:

- a) Hausnarketa eta eztabaida prozesua zabaldu behar da agente desberdinen artean lurraldearen garapenerako benetako alternatibei buruz, ondoren diagnosia onartu eta ekintzarako bultzatuz.
- b) Hiri, eskualde edota lurralde-proiektua burutu, eta prozesu horrek balio dezala bertan esku hartzen duten aktore sozialen multzoa informatu, kontzientziatu eta dinamizatzeko.

3.3.- BALDINTZAZKO EZAUGARRIAK TOLOSAN, EGITASMO ESTRATEGIKOA EGITERA ZUZENDURIK

Tolosak dituen berezko ezaugarriak kontutan izanda, herri txiki ugari biltzen dituen eskualde-buru den aldetik eta errealismo-printzipiotik abiatuta, nabaria da instituzio publiko zein pribatuak bat egingo dituen erakundea ez dagoen bitartean, Tolosako Udalak izan beharko duela ekimenaren bultzatzailea.

Tolosako Udalaren ekimen partikular honek, ordea, eskuhartzeko oinarri zabala bultzatuko du, eskualdeko udalerriak txertatzeko aukerak emanez, era horretan "kultura" berriaren sorrera bultzatuko delarik, gure udalerrria eta gure eskualdearen garapena non eraikia emango dituen kooperazioa eta koordinazioan oinarrituta.

Kontsentsu eta eskuhartzea idea hauekin batera, merezi du aipatzeak iharduera ekonomikoa osotasunean (ez sektorialki) hartu beharko duela egitasmoak eta eskualde osoaren esparrura zabaldu.

Atal honen ondorio gisa, aipatzekoak dira egitasmo estrategikoak berez dituen ezaugarriak:

- Operatiboa. Helburuak zehaztera eta lortzera zuzenduta, Tolosaren garapena eta bere biztanleen bizitza-kalitatea orokorrean hobetzera zuzenduta, eta benetan martxan jartzeko diseinatutakoa.
- Irekia eskualde osora eta inguruetara.
- Analitikoa, defizita eta potentzialitatea zehazterakoan, eta haserako diagnosiari eta lortu beharreko helburuei dagokienean.
- Sistematikoa.
- Eskuhartzailea.

Azken finean, Egitasmo Estrategikoak hasera ematen dio Tolosaldeko giza-sektore desberdinen hausnarketa-prozesua eta batera agertzeari, errealitate sozio-ekonomikoaren diagnostia ahalbidetuko duena, jokabideak proposatu onartutako helburuak lortzeko eta sektore horien eskutik ebaluaketa, diagnostia eta proposizio-dinamika iraunkorra zabaldu.

3.4.- BURUTZE-FASEAK

1. Tolosako Udalaren akordioa Egitasmo Estrategikoa martxan jartzearen alde.
2. Egitasmo Estrategikoak dituen helburu eta ezaugarrien berri eman eskualdeko Udalei.
3. Batzorde Eragilea sortu, proiektuarekin bat egin duten eskualdeko Udalek osaturikoa.
4. Tolosaldeko agente ekonomiko eta sozialak identifikatu; agente hauek Egitasmoa egin bitartean eta ondoren jokabideak ebaluatu, egoerak diagnostikatu eta proposamena egingo dituzte, Tolosaldeko biztanleen bizibaldintzak hobetzeko.
5. Egitasmo Estrategikoa kanpoko Kontsultoraren bati esleitu, bere gain hartu beharko dituelarik betebeharrak teknikoak, diseinua eta metodologia zehatza.
6. Egitasmoaren antolaketa-egituraren konfigurazioa.
7. Egitasmo Estrategikoa egiteko prozesua martxan jartzea.
8. Ondorioak eta Egitasmo Estrategikoan onartutako jokabideak publikoki aurkeztu agente ekonomiko eta sozial guztiei.

3.5.- ORGANIGRAMA

Ondoren aurkeztuko den organigrama egun egitasmo estrategikoak indarrean dauzkaten eskualdeetan itxuratutakoa da; beraz, erreferentziarako organigrama modura ikusi beharko da, eta gure kasurako proposatu ziren helburuetatik ondorioztatutako beharren arabera eta kanpoko Kontsultorak eskainitako alderdi teknikoen arabera aztertu eta erabiliko da.

KONTSEILU ERREKTOREA

TOLOSAKO UDALA ----- BATZORDE ERAGILEA -----KONTSULTORA TALDE
PLANIFIKATZAILEA

Unitate
Estrategikoak

3.5.1. Egitasmo Estrategikoko Organuen osakera eta betebeharrak.

TOLOSAKO UDALA

Osakera: . Alkate J.aren Lehendakaritzapean.

. Udalbatzan partaide diren guztiak biltzen ditu.

. Enplegu Batzordea izango da ordezkaria.

Betebeharra: . Egitasmo Estrategikoaren proposamena egin.

. Proiektuaren berri eman Tolosaldeko gainerako Udalbatzei.

. Udalbatza horiek Egitasmo Estrategikoa egitera bultzatu eta inplikatu.

. Batzorde Eragilearen Sorrera.

Behin Batzorde Eragilea sortu ondoren, Tolosako Udalak izango luke bere ordezkariarik eta Egitasmo Estrategikoaren organigrama orokorretik at geratuko litzateke.

BATZORDE ERAGILEA

Osakera: . Tolosako Udaleko Enplegu Batzordeko Lehendakaria buru delarik.

- . Egitasmo Estrategikoari atxekimendurik agertu dioten Udalbatzen ordezkari gorenak (Alkatea).
 - . Tolosaldeko Eskualde Komitea.
- Betebeharra: . Tolosa eta Eskualdeko Agente Sozial eta ekonomikoak ezagutu.
- . Egitasmo Estrategikoaren esleipena lehiaketa publikora atera kanpoko kontsultorentzat.
 - . Aurkeztutako proposamenak aztertu.
 - . Proiektua Kontsultorari esleitu.

KONTSEILU ERREKTOREA

- Osakera: . Tolosako Alkate J.aren lehendakari zapean.
- . Egitasmo Estrategikoan sartutako Udaletako Alkateak.
- Betebeharra: . Urrats desberdinen gainbegirada.
- . Diagnostika, helburuak eta estrategiak onartu.

TALDE PLANIFIKATZAILEA

- Osakera: . Kontseilu Errektoreko ordezkariak, alderdi politiko bakoitzeko pertsona bat.
- . Pertsona esanguratsuak (ordezkari sektoriala).
 - . Kontsultora.

- . Koordinatzaile orokorra.

15 lagun inguru.

Betebeharra: . Diagnostika, helburuak eta estrategiak egiteko prozesuaren arduraduna.

- . Unitate Estrategikoen koordinazioa eta dokumentuak Kontseilu Errektoreari aurkeztu.

UNITATE ESTRATEGIKOAK

Osakera: . Ikerketa-areetan gaitasun eta maila profesional handiko pertsona.

- . Lehendakari moderatzailea eta idazkari teknikoa Talde Planifikatzailearen kontura.

- . Ordezkaritza sindikala.

Betebeharrak: . Dokumentuen analisia.

- . Helburu eta estrategiei buruzko eztabaida.

3.6.- AKTUAZIO-EGUTEGIA

Otsailak 24 - Gobernu Batzordeak Egitasmoa egiteko gestioa onartu.

Urtarrilak 2 - Bilera Tolosaldeko Udalekin argitasunak emateko.

- Udalek emandako erantzuna.

- Batzorde eragilearen sorrera.

- Lehiaketa Publikoa kaleratu Tolosaldeko Egitasmo

Estrategikoa egiteko esleipenerako.

4.- Kostu Ekonomikoa (Gutxi gora-beherako datuak)

Kostu Osoa 12.000.000 pezta.

Finantziaketa:

- Foru Diputazioaren dirulaguntza %50a . 6.000.000 pezta
- (1) Eskualdeko Udalek emandakoa 1.991. urteko zentsoan sartutako biztanle kopuruaren arabera.

<u>UDALERRIA</u>	<u>BIZTANLE KOPURUA</u>	<u>KOPURUA</u>
Abaltzisketa	284	39.207
Aduna	296	40.863
Albistur	303	41.830
Alegia	1.680	231.927
Alkiza	264	36.446
Altzo	333	45.971
Amezketeta	1.035	142.883
Anoeta	1.801	248.631
Asteasu	1.205	166.352
Baliarrain	99	13.667
Belauntza	295	40.725
Berastegi	969	133.772
Berrobi	604	83.383
Bidegoian	441	60.881
Billabona	5.360	739.957
Elduaien	233	32.166
Hernialde	287	39.621
Ibarra	4.463	616.124
Ikaztegieta	370	51.079

Irura	632	87.249
Larraul	146	20.156
Leaburu-Gaztelu	567	78.275
Lizartza	697	96.222
Orendain	170	23.469
Orexa	78	10.768
Tolosa	18.150	2.505.637
Zizurkil	2.700	372.739

GUZTIRA 43.462 6.000.000

=====

(1) Eskualdeko Udalek Egitasmo Estrategikoaren finantziaketan parterik ez hartzea erabakitzen duten neurrian, gainerako Udalek gastuak bere gain hartu beharko lukete. beti ere biztanle kopuruaren arabera.

Guzti honen arabera, Alkateak proposatu du, Tolosaldeko Plan Estrategiko proposamenean parte hartzea, Tolosaldeko giza-sektore desberdinen hausnarketa-prozesua eta batera agertzeari, errealitate sozio-ekonomikoaren diagnostia ahalbidetuko duena, jokabideak proposatu onartutako helburuak lortzeko eta sektore horien eskutik ebaluaketa, diagnostia eta proposizio-dinamika iraunkorra zabaldu asmoz.

Baita ere proposatu du, 1.993. urteko ekitaldian udal aurrekontuetan diru kopuru bat aurreikusteko konpromezua harzea, Tolosaldeko Plan Estretegikoa egiteak erakarriko dituen gastuei aurre egiteko.

Tolosaldeko Plan Estrategikoan parte hartzea, aho batez onartu da.

ITURRI-AURRE ETXEAREN BALORAZIOA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Iturri-Aurre Etxearen Balorazioari dagozkien txostenak ez direla etorri eta, hurrengo Batzarrerako gaia atzeratzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

HILERRIKO PROIEKTUA

Zerbitzu Batzordeko partaidea den, Jose Antonio Mintegi Arrate Udalkideak, Lizartzako Hilerrian Nitxoan Ejekuziorako eta Bere Inguruaren Antolamendurako Estudioa eta Lizartzako Hilerrira Akzesoarean (Harri-Lubetarekin) Proiektuak, eta Baldintza Pleguak, aurkeztu ditu.

Bi proiektu hauen presupostua, 36.202.798,- peztatakoa da.

Lizartzako Hilerrian Nitxoan Ejekuziorako eta Bere Inguruaren Antolamendurako Estudioa eta Lizartzako Hilerrira Akzesoarean (Harri-Lubetarekin) Proiektuak, eta Baldintza Pleguak aho batez onartu dira.

1.992 URTERAKO, LIZARTZAKO UDALERAKO LANGILEEN KOMENIO KOLEKTIBOA

Alkateak, hitza harturik, 1.992 Urterako, Lizartzako Udalerako Langileen Komenio Kolektiborako Proposamenaren berri eman du, eta honela dio:

1.992 urterako, Lizartzako Udalerako Komenio Kolektiborako Proposamena

1. Artikulua.- Komenio honen sinatzaileek (Administrazioa eta Langileen Asanblada) errekonozitzen dute, honen oinarrizko egitura, Komunitate Autonomoko Langileen enplegu kondizioen 1.992.ko Akordio Arautzailearen testu osoa izango dela.

Errekonozimendu honek suposatzen du, komenioak afektatutako pertsonalaren enplegu kondizioetan gutxieneko maila gisa ulertzen dutela bi aldeek aipaturiko testua, eta beraz, inolaz ere ezin izango

dela aipaturiko textuan iadanik lortutako eskubide laboralak baino beheragoko kontzepturik edo hauek murrizten dituenik ezarri eta aplikatu.

Aurrekoari jarraituz eta Lizartzako Udaleko Langileentzako 1.992.ko komenio kolektibo gisa, bi aldeek sinatzen duten eta betetzera eta errespetatzera konprometitzen direnaren edukin-definizio generiko gisa, ondorengo eskubide laboral bloke hauek zehazten dira:

1.992 URTERAKO PLATAFORMA ERREIBINDIKATZAILEA

1. Blokea.- 1.992.ko Administrazio Lokalaren Akordio Erregulatzailearen textu orokorra.
2. Blokea.- Textu horri buruz, azken urte hauetan Udal langilegoak aurkeztutako zenbait plataforma erreibindikatzailetan, jasotako eta onartutako hobekuntza eta anpliazioak.
3. Blokea.- 1.992rako Komunitate Autonomo mailan, administrazio lokaleko akordio erregulatzailean agertzen diren hobekuntza guztiak, Lizartzako Udal langile guztien aplikaziorako izango dira, aurtengo urtarilaren lehena ez geroztik.
4. Blokea.- Bloke hau, Udal honetako langileek egindako plataforma erreibindikatzaileren zenbait puntuk osatzen dute:

a) Pertsonal Maila

Hitzarmen honek, 1.992ko plantila osatzen eta osatuko duten langile guztiengan izango du bere eragina. Hitzarmen hau berdin aplikatuko da denentzat, inongo diskriminaziorik gabe nahiz eta langile batek bere zerbitzua kontratatu laboral bezela bete edo funtzionario moduan.

b) Denboraldia eta Iraupena

Hitzarmen honek, 1.992ko Urtarrilaren lehenatik, 1.992ko Abenduaren 31 bitarte dirauko du, epe hau 1.993ko hitzarmen kolektiboa indarrean jarri artean luzatuko delarik.

c) Lan Orduak

Udal langileek, urte osoan zehar gehiengoz, 1.657,50 ordu bete beharko dute.

d) Ordainketa Taulak

1.992ko komenioaz afektaturik dagoen guztiak, ordainketa gordinetan igoera hau izango du: 7,5%, administrazio lokaleko akordio erregulatzailerak jasotzen duen igoera langilego guztiari ziurtatuz.

e) Kilometrajea

Lan ordutan egiten diren kilometroak, kilometro bakoitzeko 34 peza ordainduko da.

f) Bizia, Istripu eta Elbarritasun Asegurua

Gaur egun dagoen asegurua, honako kantitateetara eguneratuko da:

Heriotza naturala, istripua edo elbarritasun iraunkorra, BOST MILIOI (5.000.000) peza.

g) Gizarte Erantzunkizunaren Asegurua

Lizartzako Udala, edozein langilei bere funtzioak

betetzerakoan sor lekioken gizarte erantzunkizunaren arriskuaz arduratuko da, haren garrantziaren proportziozko kopuruan.

Alkateak, Pertsonalaren Debatuei entzun ondoren, dagozkien polizen kondizioak erabakiko ditu.

Edozein langile, bere lanak betetzerakoan auzitan sartzea gertatuko balitz, Udalak bere defentsarako giza medioak jarri beharko ditu.

h) Urteko Oporrak

1.992. urtean zehar, langile guztiek 24 lanegun (larunbatak kontatu gabe) opor hartzeko eskubidea izango dute, hauek ordainduak izango direlarik.

f) Osasun Rebisioa

Udalak, langile guztiei urtean behin, Osasun Rebisioa egingo die. Gutxienik, odol eta pixaren analisia, Rayox X eta Minbiziaren diagnostiko prekoza, egingo dira.

Luzatzen diren txostenak, langile bakoitzari banatuko zaizkie.

j) Lizentziak

Arcepaferko 53. Artikuluan, senideen heriotza edo gaixotasun grabearatik gainera, Internamenduarena erantsiko da.

k) Gaixotasun Lizentziak

Gaixotasun bajarengatik, Udal langilegoak bere ordainketen

100%koa jasoko dute, gehienez 3 urte bitarte.

i) Barne Promozioa

Bai hutsik dauden lanpostu fijoak eta sortu litezken berriak, lehenik Lizartzako Udaleko langilego fijoari eskeiniko zaizkie.

Lizartzako Udaleko edozein langilek, barne promozioan agertutako edozein lanposturen hautagai izateko eskubidea izango du, inongo diskriminaziorik gabe, nahiz eta legeak eskatzen duen ikasketa edo titulazioa betetzen duen bitartean.

m) Nibelen Berrikuspena

Trienioen arabera, langile fijo bakoitzaren nibelaren berrikuspena egingo da, bere taldeari dagokion nibel haundienera iritsi arte.

n) Eskubide Sindikalak

Lizartzako Udaleko sekzio sindikalek bere kideen ordu sindikalak, urtero akumulatzeko eta behar dituztenean hartzeko eskubidea izango dute, beren ordezkari karguen artean, erarik hoberenean banatzeko aukera izanaz.

Langile ordezkariak egiten dituzten lan eta funtzio guztiak, zerbitzu batzorde barruan eginak kontsideratuko dira, eta pertsonal zerbitzua jakinaren gainean jarri ondoren, sortu liratekeen gastuak Udalak finantziatu beharko ditu, behar den bezela justifikatu ondoren.

Lizartzako Udal langileek urtean zehar asanbladak egiteko 20 lan ordu (ordainduak) hartzeko eskubidea izango dute.

1.992 Urterako, Lizartzako Udaleko Langileen Komenio Kolektiboa, aho batez onartu da.

UDALERRI EUSKALDUNEN MOZIOA

Lizartzako Udalak, mozio honekin, 1.988ko Abenduaren 7an onarturiko Euskararen Erabilpenerako Udal Ordenantzaren ildotik, Euskara, Udalaren bizitzan ez ezik, gizarte bizitzan barneratzearen prozesuari jarraiki nahi dio. Zabalpen funtzional hau lortzeko bitartekoak jartzearen erantzukizuna Udalarena den arren, ezinbestekoa gertatzen da herritarren partaidetza. Azken finean, herritar-administratuen Euskararen erabilerak zihurtatuko bait du zabalpena gizarte esparru guztietan eman dadin.

Aldi batetik, beharrezkoa da, Euskarari lehentasunezko tratamendu bat ematea. Baina bestetik, horrek ez luke suposatuko biztanlego erdaldunarekiko diskriminaziorik.

Guzti hau eguneroko erabilerara aplikatuaz, honoko hau da proposatzen dena:

- * Lehenengoz, herritarren artean informazio kanpaina bat zabaltzea, herriko egoera soziolinguistikoa zer nolakoa den adieraziz, eta Euskararen erabilpena arautzen duen Udal Ordenantzaren edukinaren berri gogoratzuz.
- * Eskari bat luzatu herritarrei, Udaletxean aurkeztu dituzten idatzi, proposamen, proiektu, txosten, eta moeta guztietako eskakizunak, euskaraz izan daitezzen.
- * Aurrean aipaturiko xedea bete asmoz, Udalak bere laguntza teknikoa eskeiniko lieke herritarrei, hasera batetan zail gerta daiteken euskalduntze prozesu hori xamurtzeko helburuarekin.

Udalerri Euskaldunak aurkeztutako mozioa, aho batez onartu da.

EGUNKARIAREN MOZIOA

Euskaraz bizitzea ez da euskaldunon kapritxo bat, euskaldunon eskubide bat baizik. Edozein mailako administrazioak zaindu behar duen eskubidea.

Eguneroko idatzizko informazioaren alorrean euskaldunok bitarteko bat bakarrik daukagu gaur egun: Euskaldunon EGUNKARIA.

Euskal Herrian bi hizkuntzak daukaten ofizialtasuna kontutan hartzen badugu, nahi eta nahizkoa da, administrazioak prentsa idatzira bideratzen duen informazio guztia -publizataria barne- Euskaldunon Egunkarira bideratzea. Bestela euskaldun izateagaitik eguneroko prentsaren alorrean euskaraz bizitzeko aukera egin nahi duenari, bere eskubideak ukatzen zaizkio.

Kontsiderazio hauek horrela, Udal honi bi proposamen hauek onartzea eskatu da:

- 1.- Berak sortzen duen informazio guztia, prentsa idatziz bideratu nahi denean, Euskaldunon Egunkarira ere bideratzea.
- 2.- Euskal Herriko beste administrazio publikoko estamentuei berdin erabaki dezatela eskatzea.

Egunkariak aurkeztutako mozioa, aho batez onartu da.

PAKO LASAREN ARAZOA

Udal honetan inork ezagutzen ez dituen arauen arabera, Udalaren jabetzakoa den baratza erabiliz dator urte batzutan, Pako Lasa Jauna.

Baratza bezala erabiltzea oso bigarren maila edo erabat bazterrera utziaz ordea, txakur txabolak eraiki ditu baratza horretan. Esan daiteke, baratza ez gainontzeko guztia dela.

Terreno horren jabea izanik, kondizio horri dagokionezko baimenik ez dio eman Udal honek, aldaketa hoiek egiteko, hau da: baratza izatea baztertuaz edo utziaz, beste gauzak jartzeko.

Udaletxe bezela, Udal honek ez dizkio eman horretarako nahitaezkoak diren baimenak, ez txabolak eraikitzeke edo beste ezertarako.

Terreno hori, baratza bezala bakar bakarrik erabili ahal izango da, Udalak, jabe eta Udal bezala, beste zerbait erabakitzen ez duen bitartean.

Hau dena kontutan hartuta, Udalak, hamabost eguneko epea luzatu zion, Jaun horri, terreno hori dan dana garbitu, eta baratza zen bezela uzteko, jakineraziz, denboraldi hori pasaz gero, neurri administratiboak eta judizialak hartzea behartuta egongo zela Udala, hoiek suposatu lezaketen ondorio guztiekin.

Baita ere, Administrazio Prozedura Legearen 91. Artikuluaren arabera, zortzi eguneko epea luzatu zitzaion, bidezko iruditzen ziren alegazioak egiteko.

Denbora igaro da eta Udal honetan, ez da inolako alegazio eta erantzunik jaso, eta txakur txabolak bertan, diraute.

Ikusirik, Pako Lasa Jaunak, ez diola Udalari kasorik egin, Ramon Bengoetxea eta Castor Olaetxeari eskatzen zaie, bere lagunak izanik, berarekin hitzegitea, gai hau aurrera joan aurretik, pakean konpontzeko.

Bi Jaun hoiek diotenez, Udalari kasorik ez baldin badio egin, zaila ikusten dute, beraiei ere jaramonik egitea. Udala eta Pako Lasaren artean zuzenean konpondu beharreko arazoa dela diote.

Berari bidalitako eskutitzan agertzen ziren, neurri administratiboak eta judizialak hartu aurretik, zerbait komentatzea bidezkoa iruditzen dela dio, Julian Zubeldia Jaunak, bestela, aurrera jarraituz gero, beti Udala izaten dela gaiztoa jendearen aurrean.

Guzti hau dena eztabaidatu ondoren, Ramon Bengoetxea eta Castor Olaetxea konprometitzen dira, Pako Lasa Jaunarekin hitzegitea.

Horren arabera, urrengo bilerarako erantzuna ekartzeko eskatzen zaie.

ALKATETZAREN DEKRETUAK

JOSE EIZAGIRRE TREKU Jaunari, Goiz Argi 3. Esk-ko etxearen sukaldeko berrikuntza obrak egiteko, baimena eman zaio.

GASPAR BARRIOLA IRAZUSTA Jaunari, Kale Nagusia 20ean dagoen etxeari eta honi lotuta dagoen garajeari teilatua berritu, fatxada zarpeatu eta pintatu eta garajeen atek berritzeko baimena eman zaio.

LORENZO ZUBELDIA AIERBE Jaunari, Txominenea Etxe barruko tabikeak erortzen daudela eta, obrak egiteko baimena eman zaio.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Alkateak, hitza harturik jakinerazten du, Lizartzako "Goltzurko Zelai" Parke Landatarraren Antolamendurako Plan Bereziaren Erredakzioa, Pilar Amenabar Zabala Arkitektoak, Nekane Martinez Azarola, Ekaineko Abokatuak; Raouel Servert Martin, Geobioko Geografoak; Francisco Fernandez Rivera, Geobioko Biologoak eta Jon Chavarri Sarasua Arkitektoak osatutako Ekipoari adjudikatu zitzaizela, aurkeztutako eskaintzan azaltzen diren baldintzetan.

NEKAZARITZA BATZORDEA

Herriko pistak egiteko diru-laguntza eskatuta dagoela. Gaurko egunean zela bilera erabakitzeko, baina Batzordeko partaidea den Mikel Zeberio jakinerazten duenez, atzeratu egin da, Diputazioak bere garaian behar den dokumentazioa bidali ez duelako. Orduan, Irailean erabakitzeko gelditu da.

Baita ere, Ardikin egin behar den, Sarnan kontrako kanpainaren berri eman

da.

Narbaizuko herri-pista izurratuta dagoela eta txukuntzeko asmoa dela.

Pinu landaketari buruz, berriz, bere garaian bidali ziren eskutitzen arabera, lur jabe batzuekin gaia konponduta dagoela, baina besteen erantzunik ez dela jaso.

Castor Olaetxeak dio, Baso Asoziazioak eta Lur jabeek bilerak egin dituztela gai honi buruz, eta beraien proposamena aurkeztar dagoela.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamar t'erdia direnean.